

noaua

Igande honetan,
GuraSOsen ekimena
Donostian

San Joan jaiak,
hastear

Ingemarren greban
jarraitzen dute



Izeberg

“Lurrik ez begibistan” diskoa plazaratu berri dute



E 17 AUKERA BILTZAILEAK

19:00tan Aitzagatik abiatuta, EHBilduk eskaintzen dizkigun AUKERA EZBERDINAK bilduko ditugu

E 18 BOZKA GUTUNKETA

12:00etatik aurrera Mikel Laboa plazan etxe etxe banatzeko bozkak sobreetan sartzen arituko gara



KALEFIT USURBILEN



**LEHEN SAIOA DOAN!
ANIMATU ZAITEZ!**

**GAITASUN FISIKO GUZTIAK HOBETZEKO
ENTRENAMENDU-PROGRAMATUAK**

ORDUTEGI AUKERAK
ASTELEHEN-ASTEAZKEN-OSTIRAL 14:30-15:30
ASTEARTE-OSTEGUN 20:00-21:00 ETA AUKERA GEHIAGO...

688 610 932
www.kalefit.com



Albiste iruditzen

Usurbilgo udal langileak, Gipuzkoa Zutik-ekin bat

Taldeko argazki honekin atxikimendua adierazi diote Usurbilgo udal langileek, Gipuzkoa Zutik ekimenari. Honako adierazpena kaleratu dute:

Usurbilgo Udaleko langileen batzordearen adierazpena

Usurbilgo Udaleko langileen batzordeak, maiatzaren 29az geroztik, eraso guztiei aurre eginez, era iraunkorrean eta etenik gabe, Donostiako plazetan erraustegiaren kontra eta bizitzaren alde garatzen ari den Gipuzkoa Zutik ekimenari erabateko elkartasuna adierazi nahi dio.

Gu ere, erraustegiaren kontra gaude, bizitzaren alde. Egungo ereduak herri-tarren %99 zanpatzen du; ezinbestekoa da %1a bakarrik asebetetzen duen eredu hau iraultzea. Beste eredu sozial bat behar dugu: justuagoa, ama lurra errespetuz hartuko duena, osasungarriagoa, partehartzaileagoa, solidarioa-



Udaleko Langileen Batzordeak bat egin du Donostian abiarazi den ekimenarekin.

goa... Zuekin guztiokin gaittunk! Eutsi goiari eta biba zuek! Gipuzkoa Zutik. Ustelak lurpera, bizitza da handiena.

Usurbil, 2016ko ekainaren 9an,
Usurbilgo Udaleko Langileen Batzordea.

Laburrean

Tipi-Tapako azken zozketa

Pintxo festen denboraldiko azken Tipi-Tapa ospatu zuten igandean. Eta amaieran eginiko zozketan, zenbakiok suertatu ziren sarituak: Lehen saria (150 euroko erosketa balea): 4.072.

Bigarren saria (2 laguntzako afaria): 4.714.

Udal diru-laguntzak

Udalak gizarte zerbitzu, kultura, kirol, ingurumen eta nekazaritza-abeltzaintza eremuetan banatuko dituen diru-laguntzak zehaztu ditu. Behin betiko onspenaren erabakia, ekainaren 13ko Aldizkari Ofizialean. Bertan zehazten dira norbanakoei zein taldeei emango zaien laguntza kopurua.

Erakusketa Artzabalen

Artzabal zahar egoitzako pintura ikasleen lanak eta Eguneko Zentrokoen esku-lanak daude egunotan ikusgai.

■ Ekainak 17, ostirala: 17:00-20:00.

■ Ekainak 18, larunbata: 10:00-13:00 / 17:00-20:00.

■ Ekainak 19, igandea: 10:00-13:00.

noaua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkarte@noaua.eus ||| www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Luis Aranalde

“J. S. Bache-k salbatu dit bizia”

Duela hilabete pare bat James Rhodes pianista ingelesa Donostian izan zen; San Telmon egin zioten elkarrizketa bat eta lauzpabost pieza jo zituen. Bere autobiografia erosi berria nuen eta autografo bat eskatu nion; irribarretsu eta begikotasunez beterik kasu egin zidan. Nire bizitzan liburu asko irakurri ditut, baina ez dakit inoiz horrenbeste erakarri nauenik leitu ote dudan. Liburuaren izenburua: "Instrumental". Musikaz, eromenaz eta medikuntzaz memoriak.

Berrogei urte ditu Rhodesek. Zailtasun handiak izan ditu bere liburu argitaratzeko orduan; izan ere, bertan kontatzen dituen bizipenak hain gordinki kontatzen ditu eta hain latzak izan dira askotan... Bere emazte ohiak asko borrokatu du liburu publiko ez dezaten; izan ere, hamabi urteko semetxoa badute eta amaren ustez kalte handia egin diezaioke mutikoari gaur edo bihar liburu irakurtzen badu. Baina, epaia aitak irabazi du eta azkenean argitara eman dute.

Haur zoriontsua izan zen, baina "arraro samarra", berak dioenez. Sei urterekin hasi eta hamaika urte arte bortxatu egin zuen bere gorputz heziketako irakasleak. Eta jakina, gertakizun horrek guztiz baldintzatu zuen bere bizitza, halako trauma utzi zion eta. Behin baino gehiagotan suizidatzeko saioak egin zituen, alkoholikoa bihurtu zen, droga menpekotasunean erori ere bai. Ezin ahantz basatikeria haiek eragindako fantasma beldurgarriak. Pazientzia handiko psikiatra bat aurkitu zuen azkenean eta konfiantza osoa izan zuen berarengan. Sendagile honek sekulako enpatia agertu zion; gertutasun eta abegikortasun horiek lagundu zioten azkenean Rhodesi bere fobiak eta amesgaiztoak kudeatzen.

Liburuaren parterik handiena musikari eskaintzen dio, edo hobeto esanda, musika klasikoak bere bizitzan izan duen eraginari. Zazpi urte zituela entzun zuen kasete batean Bachen "txakona" ospetsua eta une horretan erabaki zuen musika izango zela bere bizitzaren ardatza. Bachen pieza horrengatik honela

dio: "musika honek emozio klase guztiak sentiarazten dizkit. Inoiz ez nuen sumatu horrelakorik. Musika hau neurrigabea da, hilezkorra". Bere emazte hil berriaren oroimenez eta omenez konposatu zuen Bache pieza hau. "Maitasun abesti ororen Eiffel dorrea", horrela definitzen du Rhodesek. Pieza honek lagundu zion bere barne deabruak uxatzen. "Bach-ek salbatu zuen nire bizia, zentzu propioan esanda".

Pasarte asko eskaintzen dizkio bere semeari; mirari bat izan zen eta da bere esanetan. Ez omen du ezer sentituko bere bizitzan aitatasun esperientziarekin konparatzekorik. "Jai zenean, maitasunaren bonba atomikoaren antzeko zerbait leher-tu zen nire baitan. Nire semetxoa besoetan jaso nuenean ulertu nuen zer zen perfekzioa, baita Jainkoaren ideia ere". Zerbait magikorik baldin badago mundu honetan, horren froga seme bat edukitzea da. Beti bere alboan izango duela agintzen dio; pertsona bezala izan nahi duen ametsa betetzea opa dio. Semea da bere bizitzaren guztizko poza.

Bere ibilbide latz horretan, zortea ere izan du. Jende askok lagundu dio, besteak beste, bere amak: beti alboan izan du une zailenetan; seme batek ezin du ahaztu bere amak eskaintako babes hori. Denis Blaisek ere bai: berari esker eman ditu kontzertu anitz, diskoak grabatu, telebistako programetan parte hartu, prentsan agertu... "Nire bizitzan zerbait itxurazkorik egin badut, zuri zor dizut", dio autobiografiaren amaieran. Bere bigarren emaztea Hattier eskaintzen dizkio lore ederrenetariok: "duela gutxi ulertu nuen egia bat: emakumearen maitasunak salba dezake gizon bat. Zure gorputzeko poro orori guztizko edertasuna dario. Egunero irabazi nahi nuke zure bikotea izatearen pribilegioa".

Hona hemen liburuaren gainean idatzitako iritzi batzuk: "artearen ahalmen sendatzailearen defentsa sutua" dio David Truebak. Rosa Monterok: "Beti ikas daiteke, zauri krudelez beteta bazaude ere. Etor-kizunik badugula erakusten digu Rhodesek".

Imanol Ubeda | Idoia Torregerai | Maialen Unanue | Ilazki Gaintza | **Luis Aranalde** | Luken Arkarazo | Aritz Gorriti

Ika-mika

Ziortzaren kanpaldiaz

Ziortzak urtero antolatzen duen udako kanpaldia zerresan handia eman du azken asteotan. Kanpaldi horretarako izen-ematean berdintasun-irizpideak betetzen ote ziren, horixe izan da eztabaidagai nagusia. Eta, horri lotuta, ea udalaren diru-laguntzak eman beharrekoak ziren ala ez. Azkenean, aurre-matrikulatutako gaztetxo guztiei bidali zaie kanpaldian izena emateko gutuna.

Horrek, praktikan, gainditu egiten du eztabaida.

Gertatutakoaren harira, honakoa adierazi nahi dugu:

- Ziortzaren jarduna eta lana gogotik baloratzen dugu. Jabetzen gara zer ekarpen egiten duen gazteei begirako herrigintzan. Lan horren aitortza egiten dugu, eta aurrerantzean ere lan horri sostengua emateko borondate osoa daukagu.

- Hain zuzen ere, horrelakorik berritri gerta ez dadin, irailetik bertatik Ziortzarekin elkarrizketan aritzeko konpromisoa hartzen dugu.

- Aurtengo kanpaldiari dagokionez, udalak eman du dagoeneko diru-laguntza eta, haur kopuru handiak eragin ditzakeen zailtasunei aurre egiteko, prest gaude laguntzeko, azpiegiturak eta baliabideak eskainiz.

- Goraipatzekoa eta aintzat har-

tzekoa iruditzen zaigu Ziortzako begirale taldearen heldutasuna eta jarrera. Tirabirei gailentzen utzi gabe, konponbidearen alde egin, eta adostasuna lehenetsi dute. Horixe da, izan ere, gure haur eta gaztetxoei eman diezaikegun lezioirik ederrena, eta horrengatik da oso estimatzekoa izandako jokabidea.

**Usurbilgo udaleko
gobernu-taldea**

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: ekainak 24. Idatzia ekartzeko azken eguna: ekainak 20.

Erraustegiari buruzko galdeketaz erabakitzekeo batzarra egingo da larunbat honetan

1.185 herritarrek eskutakoaren aurka, Espainiako Gobernuak Usurbilgo Udalarri erraustegiari buruzko galdeketa antolatzea debekatu ostean, Udalak herritarren esku utzi zuen gaia. Orain zer egin erabakitzekeo, larunbat honetan 11:00etan Udarregi Ikastolako eraikin gorriko Erdiko aretoan egingo duten batzar irekira deitzen ditu herritarrak Erraustegia Erabakia herri plataformak. Erraustegiaz azken hitza usurbildarrek izan dezaten lanean segitzen duen bilgunitetik azpimarratzen dutenez, “hartu beharreko erabakia herriak hartu behar duela uste dugu”.

NOAUA! Hemendik aurrerako pausoak finkatzen hasi nahi da larunbateko batzarrean?

Erraustegia Erabakia: Galdeketaekin zer egin erabaki behar dugu; Madrilek emandako ukoarekin konformatu eta galdeketa gaia baztertu, edo galdeketaekin aurrera segi, baina beste era batean. Udalak ez badu egiten, herriak egin beharko luke, beste esparru batzuetan egiten ari den moduan. Hor dago Gure Esku Dagoren esperientzia. Batzar horretan baloratu beharko dugu zer lan suposatzen duen galdeketa hori egiteak herriarentzat. Batzarrera datozen guztiek iritzia eman ahalko dute, azkenean denon artean erabakia hartzeko.

N. Udal esparrua gainditzen omen duelako debekatu du galdeketa Espainiako Gobernuak. Zer balorazio egiten du zue debekuz?

Erabili duten argumentua oso ahula da. Ezin da esan Udal batek bere eskumen bat mankomunitate bati uzteagatik, eskumen hori galdu duenik. Udalak



Larunbatean goizeko 11:00etan batuko dira Udarregi ikastolako eraikin gorrian. Batzar horretan erabakiko dute galdeketa antolatu ala ez.

ERRAUSTEGIA ERABAKIA

“Galdeketaekin zer egin erabaki behar dugu. Udalak ez badu egiten, herriak egin beharko luke, beste esparru batzuetan egiten ari den moduan”

beti erabaki dezake eskumen hori berreskuratzea. Udalak utzi zuen hondakinen bilketa mankomunitatearen esku eta gero eskumen hau berreskuratu du. Eta udal honek egin duen moduan, beste askok egin dute. Madrilek erabilitako argumentu hori oso ahula da. Dena den, hori aitzakia beste ezer ez da izan. Honen atzean arrazoi politiko oso sakonak daude.

N. Erraustegiaren inguruko galdeketa bat ez onartzeko arrazoi nagusia zein izan daiteke?

Horrelako galdeketeekin kolokan jartzen dena ez da bakarrik erraustegia, sistema politikoak duen defizit demokratikoa agerian geratzen da. Bizi dugun partitokrazia hau jartzen du kolokan, egun dugun sistema politiko osoa, eta hori ezin dute onartu. Elite

politiko-ekonomiko bat bada, non erabakiak gutxi batzuen mesederako hartzen dituzten. Sistema hau sustatzeko partiduen eta enpresa handien arteko konplizitate dago, eta horren oinarrian dago horrelako proiektu handien kudeaketa. Beren kezka nagusia horrelako galdeketa baten aurrean ez da erraustegia egingo den edo ez, bere kontrolpean dagoen sistema politiko honetan irekitzen den pitzadura baizik.

N. Eta erraustegiak hori guztia sinbolizatzen du.

Bai. Gipuzkoa Zutik ekimenak oso ondo seinatu du zein den hemen arazoa. Gertuko arazoa erraustegia da, baina horren atzean arazo handiagoa dago. Zergatik dugu erraustegiaren arazoa? Gutxiengo batek, elite batek kontrolaturiko sistema politiko honen ondorioa da erraustegia. Galdeketa antolatzekeo debekuz ere honakoa aipatu behar da. Beti esaten da Madrilek emandako ukoa dela. Kontuz, ukoa Madriletik etorri da baina bere jatorria ez dago Madrilen. Ukoa Aldunditik eman da, Gipuzkoatik atera da uko hori, PSE, PNV eta PP hirukotik. Madrilek emandako erantzuna Gipuzkoako Aldun-

ditik agindu da. Madrilek eskatu ditu txostenak eta txostenak egin dituena Gipuzkoako Aldundia izan da.

Alderdi guztiek dute “lan polit, interesgarri eta mesedagarria egiteko aukera”

NOAUA! Galdeketa onartzekeo egin zen Usurbilgo osoko bilkuran, oposizioko udal taldeei posizionatzea eskatu zenieten. Eskaera horrek jaso du erantzunik?

Erraustegia Erabakia: Ez. Osoko bilkura hartan ikusi genuena tristeza izan zen. Une horretan ez ziren herriko ordezkariak, bere partiduen ordezkariak baizik. Ez baitzituzten defendatu herriaren interesak, beren partiduen interesak baizik. Beren alderdien egituren aurrean, herriaren interesak defendatzeko erakutsi zuten ausardia faltak tristura eragin zigun. Beraiek badute lan polit, interesgarri eta mesedagarria egiteko aukera, herri honen alde; beren partidu barruetan eztabaida zabaltzea, inposaketak baztertzeko, eta erraustegiak zer suposatzen duen ondo aztertzea. Une honetan, EAJ-PSOE-PP hirukoa gure osasunarekin jolasten ari da, beren interesak babesteko. Hori onartezina da edonorentzat. Hori ez da kontu politiko bat une honetan, osasun kontu bat baizik. Edozein izanda ere gure ordezkari baten kolore politiko, gure osasuna defendatu behar du. Eta gure ustezko ordezkariak ez zuten hori egin osoko bilkura hartan.

Hirigintzako lan estrategikoak

Legegintzaldi honetarako gobernu programan aurreikusiak dituen hiru egitasmo bideratzen hasiko da Udala: Zumarte birgaitu eta handitzea, eta Irazu zein Udarregi Ikastolako Agerialde eraikin pareko kaleak berrurbanizatzea.

Zumarte

Musika Eskola

Aspaldiko eskaerei eta begi bistako beharrei erantzunez, Usurbilgo Udalak birgaitze ekologikoa eta handitze lanak bideratuko ditu Zumarte Musika Eskolan legegintzaldi honetan zehar. Espazioa handitu, irisgarritasuna bermatu eta dauden intsonorizazio arazoak konpondu nahi dira, beti ere eraikinaren egungo izaera mantenduta. Halere, haratago joan nahi du Udalak. Ingurumen aldetik jasagarria izango den interbentzioa egingo dute. Legegintzaldian zehar gauzatuko duten proiektua erre-dakzio fasean da orain.

Berritze-proiektua, urtea amaitezako

Lau arkitektura taldeei proposamenak aurkeztea eskatu die Udalak. Proposamenok uztailera hasierarako mahai gainean izango ditu. Horietako bat aukeratu beharko dute gero. Urte amaie-



Lau arkitektura taldeei proposamenak aurkeztea eskatu die Udalak. Argazkia: Usurbilgo Udala.

“Espazioa handitu, irisgarritasuna bermatu eta intsonorizazio arazoak konpondu nahi dira, beti ere eraikinaren egungo izaera mantenduta”

rarako proiektua prest izango dela aurreikusten dute.

Aldaketarik ez bada, 2017an hasiko dira lanak

2016ko aurrekontuetan jaso bezala, 20.000 euro bideratuko ditu Udalak lan haue-tara. Egitasmoa hurrengo urtean garatzen segiko dute.

Aldaketarik ez bada, 2017an hasi litezke Zumar-teko eraikina berritzeko la-

nak. Egungo ez gain, espazio berrituari bestelako erabile-rak emateko egon daitekeen aukera aztertu nahi du Uda-lak, eragileekin batera; Zu-marte, arte eszenikoentzat edota dantza taldekoentzako gunea, musikari loturiko to-pagune zabala izatea etorki-zunean.

Irazu kalearen eraberritzea

Mikel Laboa plaza Kale Nagusiarekin lotzen duen pasabidea itxuraldatzen ikusiko dugu uda honetan. Eraberritzera doaz, herri erdiguneko kultur gunea nagusiak zeharkatu eta 114 metro luze dituen Irazu kalea. Irisgarritasun arazoak konpondu eta azpiegitura berritu nahi dute; ur sarea eta saneamendua, kalearen berezko izaerari eutsita.

Kontu handiz egingo dituzte lanok. “Harriaren alineazioa mantendu nahi da. Harri bakoi-



Lanak zatika egingo dira. Beraz, kalea ez da osorik itxita izango inoiz.

ta altxa eta erdibituko da”, berri eman dute Udaletik. Tratatu ostean, berriz zeuden lekuan

jarriko dira. Harri irristarkotasun azterketa probak egin dizkie Udalak eta “emaitzak oso onak”

izan direla adierazi digute. Espaloia eta kale erdiko pasabidea ere maila berean geratuko dira eraberritze lanon ostean.

Lanak uztaila amaieran hasitakoa da Udala eta 4 hilabetez luzatuko omen dira. Berritze lanak zatika egingo dituzte, honen bestez, kalea ez da osorik itxita egingo une bakar batean ere.

Lanek iraun artean, Irazura sartu edo irteteko modua bermatua egingo da. Urtebete barru lanok berak egingo dituzte frontoiz bestaldeko kalean, Etxebesten eta handik Udaletxera jaisteko Irutasuna kalean ere.

burutzen hasiko da Udala



Agerialde atzealdeko patiotik aldapan behera jaisteko baranda babestuko dute, zebrabidea eta aparkalekuak egokitu. Errepideari ere eragingo diote berrikuntzek. Ikasleen jolasgaraian, eta ikastolara sartu eta ateratzeko orduetan eremu hau autoen joan etorrirako itxita geratuko da.

Alperro-Buru kalea berritzea

Uda honetan eraberrituko duten beste kalea, Alperro-Buru-
ren azken zatia dugu. Udarregi
Ikastolako HH eta LHkoen erai-
kin atariko bide zatiaz ari gara.
Agerialde pareaz. Ikasleek osti-
ral honetan hasiko duten bi
hilabete pasatxoko oporraldia
baliatu nahi du Udalak, inguru
horretan egin asmo dituen
eraberritze lanak bideratzeko.
Batetik, Agerialde atzealdeko
patiotik aldapan behera jais-

LANAK, HASTEAR

*“Ikasleek
ostiral honetan
hasiko duten bi hilabete
pasatxoko oporraldia
baliatu nahi du Udalak,
inguru horretan egin
asmo dituen eraberritze
lanak bideratzeko”*

teko baranda babestuko dute,
zebrabidea eta denontzako
aparkalekuak egokitu.

Agerialdeko biribilgunetik Alperro Buru 8raino,

kalea norabide bakarreako
Agerialde ondoko biribilgunetik
hasi eta Alperro-Buru 8raino, hau
da, eraikin berriaren pareraino,
norabide bakarreako izango da
kale hau lanak amaitutakoan.
Ikasleen jolasgaraian, eta ikasto-
lara sartu eta ateratzeko ordu-
etan eremu hau autoen joan eto-
rrirako itxita geratuko da. Kale
zati horretan autoa aparkatua
duenak ezingo du bertatik mu-
gitu, eta ezingo da bertan apar-
katu aipatu orduotan.

Irailerako prest

Begi bistako aldaketak era-
gingo dituzte lanok. Baina
ezkutuan geratuko diren
eraberritze lan batzuk ere
egingo ditu Udalak. Hain
zuzen, inguratzen duen
zonaldean ez bezala, kale
azpitik igarotzen diren euri
uren eta ur zikinen sareak
bateratuak daude egun. Sare
hau erdibitu egin nahi Uda-
lak; ur zikinen eta euri uren
ibilbidea bereizi.

102.000 euro guztira

Lanok ia 102.000 euroko au-
rrekontua izango dute. Herri-
ko jaiak amaitu eta berehala
hasi nahi dituzte, 2016-17
ikasturte berria hasterako,
irailerako alegia amaituta
egon beharko baitute.

Lanok beste bi fase

Aurrerago gauzatuko di-
tuzte ingurune honetako
hurrengo bi faseak. Bate-
tik, Alperro-Buru kaleko 8
zenbakidun eraikin buel-
ta berrurbanizatuko da.
Eta Agerialde eta Udarregi
Ikastolako eraikin gorri-
aren artean dagoen men-
dixkan oinezkoentzako
pasabidea egokituko dute.
Bidea argiteria eta eserle-
kuekin hornituko du Uda-
lak, eta hartara, Udarregi
Ikastolako hezkuntza gun-
e osoa lotuta geratuko da.

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAQUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

**ARRANDEGIA
PELLO**
PUNTA PAX 7
943 36 21 64
USURBIL

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

talak
36-60
INQUIETUD
JANTZI-DENDA
Nagusia 49, LASARTE-ORIA

Aldundia eta Kutxabank, Gipuzkoa Zutik ekimenak inguratua

Guztion osasuna arriskuan jar dezakeen erraustegia sustatu asmo duen Aldundiko eta ondoko Kutxabank egoitza inguratu zuten bizitza babesteko aldarriek, Gipuzkoa Zutik-ek aurreko ostiralean antolatu zuen giza-kate luzean. Hain luzea, bi kate lerro ere osatzera heldu zirela. Bulebarreko asanblada jendetsuarekin borobildu zuten, ekimenean zehar etenik gabe bizitzaren alde eta erraustegiaren aurkako oihuak entzun ziren mobilizazioa.



Aurreko astean Donostiako Gipuzkoa plazan egin zuten giza-katean, bizitzaren alde eta erraustegiaren aurkako oihuak entzun ziren.

zakezue Gipuzkoa Zutik-en berri:

Facebook: Gipuzkoa Zutik

Twitter: @GipuzkoaZutik

Hiritik herrialde osora zabaltzen ari da ekimena

Bi aste bete ditu Gipuzkoa Zutik mugimenduaren protesta baketsuak. Lehen egunetatik egon da, Donostian

indartzen doan mugimendua herrietara zabaltzeko asmoa. Eta jada herriak zutitzen hasiak dira; Oiartzunen, Oretan edota Astigarragan, elkarretaratze eta mobilizazioak egin dituzte eta gero, Donostiara joateko geratu izan dira. Hainbat usurbildar ere ekimenetan parte hartzen dabil etengabe.

Erraustegiaz erabaki behar dutenei biltzeko eskaera egin diete berriro OEIT mediku taldekoek

Ez da eskaera plazaratzen duten lehen aldia. Baina hilabeteak pasa eta erantzunik ez dute jaso. Ez dute ulertzen zergatia, baina berriz saiatu nahi dute. “OEIT-tik, berriro ere, aldebakartasunez erraustegia eraikitzeke erabakia hartu duten politikariei bilera eskatu nahi diegu”, adierazi dute OEIT taldetik.



“Gurekin batu daitezela eta entzun ditzatela azken urteetan argitalpen zientifikoetan argitaratu diren datuak”, hori eskatzen dute OEITko kideek.

Zuhurtasun-printzipioa

Eztabaida parametro zientifiko eta arrazionalak ekartzea eskatzen dute, eta horretarako, lehen urrats gisa, “gauza bakarrik eskatzen dugu: gurekin bil daitezela eta entzun ditzatela azken hamarkadako

literatura zientifikoan publikatu diren datuak. Agintariak ondorio larriak izan ditzakeen erabaki baten aurrean daude eta, datu zientifikoaren argitan, gure ustez, zuhurtasun-printzipioa lehenetsi beharko lukete. Osasunarekin ez baita

jolasten”.

Politikari batzuek “edozein astakeria esateko gai direla baieztatzen ari gara, beraien argumentazioa defendatzeko inongo ikerketa sendo eta modernorik aurkeztu gabe”, dio OEIT-k.

Errioa eta inguruak biziberritzeko plana

Oria ibaiaren Paisaiarako Ekintza Plana herritar eta eragileen ekarpenez osatzeko, parte hartze prozesuaren bigarren fasea martxan du Udalak. Lehenengoan, 20 agentek ekarpenak egiteko aukera izan zuten. Herritar ororen txanda da orain. Gai honi buruzko inkesta bete dezakezue. Orriak, Sutegi udal liburutegian, Potxoenean, Oiardo Kiroldegian, anbulatorioan eta udaletxean eskura ditzakezue. “Eskertuko genuke parte hartzea. Guztion artean errioa bizi! lortuko dugu” adierazi dute Usurbilgo Udaletik. Udal web orrialdean, usurbil.eus atarian sartuta ere bete dezakezue inkesta.

EHBilduren hauteskundeetako ekitaldiak

Asteburuan egin zituzten lehen ekitaldiak. Gazteek talde argazkia atera zuten futbito txapelketako ostiral gaueko partiduen artean frontoian. Eta herrian zehar jarriak dauden paneletan, jada erdibidera heldu den kanpainako kartelak itsasten aritu ziren biharamunean. Astebururako ekitaldi gehiago iragarri dituzte:

Ekainak 17, ostirala

19:00 Aitzagatik abiatuta, “oilasko biltzailez jantzi eta EHBilduk eskaintzen dizkigun aukera ezberdinak bilduko ditugu”.

Ekainak 18, larunbata

12:00etan hasita, “etxe etxe banatzeko bozkak gutunazaletan sartzen arituko gara” Mikel Laboa plazan.

Ekainak 24, ostirala

19:00 Kalezarren eskuorri banaketa.

Senitarteko ekitaldiak (Ezkontzak, bataioak...)



ENPRESEN EKITALDIAK (BILERAK, INZENTIBOAK...)

- **BILERA GELAK, 200 PERTSONATAKO AFOROA.**
- **INTERNET ABIADURA HANDIKOA ETA "BUSINESS FACILITIES" DUTENAK (AHOLKULARITZA, IKUS-ENTZUNEZKOAK, INFORMATIKAKO TRESNAKALOKAIRUAN, LAGUNTZAILEAK..)**
- **ESKUALDEKO ENPRESEI TARIFA BEREZIAK (ORIO, USURBIL...)**
- **MENU EXEKUTIBOA, EGUNEKO MENUA, ASTEBURUKOA...**



Hondartza bidea 1, Orio 943 89 44 40 orio@aisiahoteles.com



Izeberg, “Lurrik ez begibistan”

ROCK MELODIKOAREN OZEANOAN, DISKO SENDO BAT ITSASORATU DUTE

U raren gainera ikusten dena, iceberg osoaren bostena baino ez da. Herriko musika talde hau deskubritzearen denarentzat ere baliogarria da azalpena. Euren berri genuenontzat beste. Laukoteak orain arte erakutsi duena baino askoz gehiago dakarrelako “Lurrik ez begibistan” diskoak. Izotz-bloke eder horien pareko lana.

NOAUA! Konposizioan, grabazio prozesuan, diskoaren estetikan... Mimo handiz prestatu duzuen diskoa dela esan daiteke, ezta?

Bai. Beti izan gara konposizioa edo alde musikala asko zaintzekoak, baina disko honetan beste faktore guztiei merezi duten atenzioa ematen saiatu gara, disko borobil bat egiteko asmoz.

N. Noiz hasi zineten lan hau prestatzen? Nolako izan da diskoaren prozesua?

Diskoaren prestaketa *Azalera* kaleratu eta denbora gutxira hasi zela esan daiteke, lehenengo ideiak agertzen joan ziren heinean. Baina azken urtea buru-belarri eman dugu honetan. Astero hiruzpalau saio egin ditugu denbora tarte honetan, eta kantuek zer nolako eraldaketa izan duten ikusteak lagundu digu ilusioa mantentzen.

N. Haritz Harreguyren estudioan aritu zarete. Nolako izan da grabazio prozesua? Haritzek kantuei egin dien ekarpenarekin pozik zaudete? Haritz laguna dugu lehenagotik eta honek grabazio-prozesuan naturaltasunez eta konfidantzaz jokatzeko lagundu digu. Momentu gogorak izan ditugu noski, baina orokorrean



Urdaia grabatu dute diskoa, Haritz Harreguyren Higain estudioan. Argazkia: Ibai Arrieta.

IZEBERG

“Azken urtea buru belarri eman dugu honetan. Astero hiruzpalau saio egin ditugu denbora tarte honetan, eta kantuek zer nolako eraldaketa izan duten ikusteak lagundu digu ilusioa mantentzen”

oso eroso sentitu gara grabaketa prozesuan, etxean bezala. Gainera Haritz proiektuan barruraino sartzen den horietakoa da eta gure diskoarekin ahalegin extra bat egin duela iruditzen zaigu. Psikologo tarifa ez baitigu kobratu!

N. Higain estudioa San Estebanen dago. Etxean bertan grabatzeko aukera izan duzue. Bertatik bertara aritzea luxu handia izango da, ezta?

Egia esan, izugarria. Beste talde asko ezagutu ditugu ahale-

gin handiak egin behar izan dituztenak diskoa grabatzeko: hilabete oso batean zehar egunero kilometro pila bat egin, lanean ari diren bitartean... Gure kasuan estudioa bertan genuen, etxean bazkaldu eta afaldu dugu, Haritzekin batera igotzen ginen eta bakarka ginenean, San Estebango aldapa igoerako abiadura errekor berriak ezarri ditugu! Kar kar kar!

N. Beñat Gaztelumendi Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako irabazleak hiru letra idatzi ditu. Jokin Labayen eta Haritz Casabal bertsolariek ere bana idatzi dute. Ixak Arruti bertso saio musikatueta aritzen da. Akaso hortik dator bertsolariekiko joera?

Ixak eta Antton, biak aritzen dira bertso musikatueta eta horrek ireki dizkigu beraien ganako ateak. Luxuzko bidelagunak ditugu, ezin dugu ukatu eta oso gustura gaude emaitzekin.

Diskoaren azala,

Joseba Larratzek egin NOAUA! Portada-egilea ere, gertukoa duzue.

Bai, bagenekien Joseba Larratxe usurbildartuta dabilela eta bere lanak ikusita ideia polita izango zela erabaki genuen. Berak proposatu zigun diskoaren diseinua bere anaia Mikelen bitartez egitea eta guretzako ohore bat da Larratxetarrak elkarlanean sortu duten lehenengo diskoa izatea. Oso gustura gaude. Diskoak badu atenzioa deitzen duen zer-bait, eta ondoren detaile asko daude deskubritzeko.

Bide batez, harro esan dezakegu “Kilometro 0 diskoa” atera dugula!



Aurkezpen kontzertua, ostiral honetan Usurbilgo gaztetxean

NOAUA! Lehen inpresioan, diskoa samur antzean hasten da baina gero lurralde ilunetan murgiltzen da Izeberg (estilistikoki, musikalki). Akaso bada zuen ezaugarria, doinu arinagoak zein gogorrak uztartzeko duzuen berezko joera.

Kanta bakoitzak bere mundutxo sortzen du minutu gutxi batzuetan eta diskoan oreka bat mantentzen saiatu gara. Gure beste taldeetan izan ez dugun argitasun puntua du Izebergek eta horrek aberastu egiten du.

N. Kazetariok etiketatzeko joera dugu. Rock melodikoaren etiketa gustuko al duzue? Nola definituko zenukete Izeberg taldearen eskaintza.

Topiko bat den arren, gu ez gara oso etiketa zaleak. Batez ere, ez dakigulako jartzen! Kar kar kar! Hasiera batean guk pop-rocka esaten genion baina behin baino gehiagotan "Izebergek nun du ba popa?"



Lehen kontzertua ostiral honetan eskainiko dute. Gaueko 23:00etan, Zapparra taldekoekin batera. Sarrera, doan. Argazkia: Kilometroak2015.

IZEBERG

"Gure beste taldeetan izan ez dugun argitasun puntua du Izebergek eta horrek aberastu egiten du"

esan izan digute eta horren harira rocka esan diogu eta kitto!

Bestalde, melodikoa ere bada, noski. Beraz norberak dei diezagula nahi bezala.

N. Beste talde batzuetan ere bazabiltzate. Horrelakoetan, nola antolatzen zarete? Dena konpartibilizatzea erraza al zaizue?

Ez da erraza, batez ere Izebergi eskaintzen diogun ordu kopurua kontuan hartuta, baina nola edo hala aurrera

goaz beste proiektuetan ere eta saiatzen gara ahalik eta eragin txikiena izan dezan talde batekin besteengan. Baina baditu abantailak ere, talde batekin sortze-lanetan lokalean giltzapetuta zauden bitartean, bestearekin zuzeneko harra kendu ahal izatea gozamen da.

Ostiralean, gaztetxean

Lurrik ez begi bistan diskoa laster hasiko zarete zuzenean aurkezten. Data batzuk aurreraterik bai?

Diskoaren aurkezpen kontzertua Usurbilgo gaztetxean emango dugu, ekainaren 17an, eta horren ondoren ekainaren 28an Lasarteko festetan, uztailaren 2an Asteasun, 10ean Iruñean, 15ean Oñatin eta 16an Añorgan joko dugu. Abuztuaren 5ean San Estebango festetan joko dugu gainera, gure diskoa jaino den auzoan, denok gonbidatuta zaudete!

Taldearen poteo lekua, kontzertu gune

Afalurreko poteo ordua musikatu ziguten, The Hastelen's taldekoekin larunbat arratsaldean. Zumarate Musika Eskolaren altzoan jaiotako taldeak, astelehenero egiten dituen entseguen ikasturtea kalean borobildu nahi izan zuen.

Kontzertuetarako eskenatoki berria deskubritu diguten taldekoen poteo taberna atarian, Benta aurreko plazatxoan. Lagun, senide eta herritarrekin agurtu nahi izan zuten ikasturtea, egunotan, Zumarteko gainerako taldeak egiten ari diren moduan.



The Hastelen's taldekoekin lagun, senide eta herritarrekin agurtu nahi izan zuten ikasturtea. Egunotan, Zumarteko gainerako taldeak egiten ari diren moduan.

Zumarteren ikasturte amaierako kontzertuak

Ikasturte bukaerako ekitaldiak antolatu dituzte egunotarako. Azkenak hauexek:

Ekainak 16, osteguna

18:30 Talde instrumentalen emanaldia Sutegiko auditorioan.

Ekainak 17, ostirala

18:00 Pop-Rock-Folk taldeen emanaldia frontoian. Antolatzailea: Zumarate Musika Eskola.

Euskalduntze bidean

MINTZALAGUNEN HASI BERRI DA ETA UDAN BARNETEGIRA DOA IKASTERA

Lehenengo ikasturtea du Etumeta AEK euskaltegian. Hain gustura dabil, luzatzea erabaki duela. Uztaila hasieran, Adunako familia barnetegira doa hurrekin euskalduntzen segitzera. Hori gutxi ez eta, Mintzalagun egitasmoan ere hasi berria da. Hazten ari zaizkion hurrekin euskara ahotan hartu ahal izateko ahaleginetan gustura dabil, motibatuta. Euskalduntze bidean den Janine Vicente Medina herritarraren lekukotza bildu dugu lerrootan.



Janine Vicente Medina oso gustura dabil Mintzalagunen, "kaleko hizkera ikasten ari naiz. Oso pozik nago taldearekin".

Mintzalagunen hasi berria zara. Zer moduz moldatzen zara?

Janine Vicente Medina: Bi hilabete daramatzat bakarrik, Aitziber eta Evarekin. Oso gustura nabil. Oso gertukoak dira eta asko laguntzen naute. Normalean, asteazkenetan biltzen gara, ordubetez egoten gara euskaraz hitz egiten.

Bidelagun faltagatik, Mintzalagunen parte hartzeko itzarote zerrendan zinen?

Ez nuen talderik, itzarote zerrendan nengoen. Orain oso gustura nabil. Kaleko hizkera asko ikasten ari naiz. Oso pozik nago taldearekin. Udan ez naiz hemen izango, baina ea oporraldiaren ostean, irailean edo urrian segitzea posible dugun.

Zer moduz euskaltegian?

18 urterekin egin nuen ikastaro bat, baina ordutik denbora asko pasa da eta maila galdua nuen. Euskaltegian lehenbiziko urtea dut. Asko falta zait oraindik, baina oso gustura nabil, asko ikasi dudalako; hitz asko, aditzak, esaldiak osatzeko hitzak batzen...

Lehen urtea izateko, azkar ari zara ikasten?

Oso gustura nago, interes handia dut. Nahi nuke gaitasun

JANINE VICENTE MEDINA

"Ingurune erdalduna dut eta euskaraz hitz egitera ohitu behar dut. Alde horretatik, Mintzalagunek segurtasun handiagoa ematen dit. Beti belarria jartzen dut ia nola hitz egiten duten, zer esan behar dudan, nola. Horrela ikasten dut"

handiagoa izatea, baina pixkanaka joan behar da. Urrian lanean hasiko naizenez, ia neure ordutegian egokitzen den talderik euskaltegian. Bestela, gauza bera ez den arren, autoikas-kuntzaren bidetik segiko dut. Euskara ikasteko asmoa dutenak animatu nahi ditut. Klaseak oso azkar pasatzen zaizkit.

Nolakoa da klase egun bat?

Gramatika ikasten dugu. Irakurmena lantzen dugu. Oso zaila egiten zait, baina geroz eta hobeto irakurtzen dut. Hizketan aritzen gara baita, gertukoak zaizkigun gaiez. Taldeko bi kideek aurrerago perfileko azterketak egin asmo dituztenez, proba moduan azterketa batzuk ere egiten ditugu. Tartean idazlanak. Beti alderantziz

idazten ditut esaldiak, erdaraz pentsatzen baitut. Pixkanaka zuzentzen joango naiz.

Udan barnetegira zoaz.

Uztailaren 4tik 15era, umeekin batera, Adunara goaz. 3 orduko eguneroko ikastaro intentsiboa egingo dugu. Tarte horretan, umeak begiraleen zaintzapean egongo dira. Haietzako ere ondo dago prestatua.

Umeak aipatuta, zure ahalegina haietzat ere lagungarria izango da.

5 urte dituzte. Haien nirekin gehienetan erdaraz hitz egiten dute, batzuetan baita euskaraz ere. Beraien artean erdaraz, ikastolan euskaraz. Esan zidaten umeek ikasi behar dutela ama hizkuntza. Neurea gaztelania da. Baina badakite euskaraz. 2-3 urte barru, geroz eta gehiago euskaraz hitz egingo dugu ziur.

Zein da zure erronka?

Euskara erabiltzea. Umeek ikastolako etxeko lanekin laguntzea. Kanean ere erabiltzea. Lehen Donostian ematen nuen eguna lanean. Ez nuen denborarik hemen kanean ibiltzeko. Orain Usurbilen denbora asko ematen dut.

Izen ematea

Mintzalagunen

Euskalduntzen ari direnek eta haien lagundu nahi dietenek, badute euskara ahotan hartzeko tresna ezin eraginkorragoa eta lagun artean euskaraz hizketan aritzeko topagune ezinhobeia; Mintzalagun egitasmoa. Izen ematea urte osoan zabalik duzue.

Etumeta AEK Euskaltegia

607 609 379
usurbil@aeq.eus
muntteri.blogspot.com.es
aeq.eus

NOAUA! Kultur Elkartea

943 360 321
elkartea@noaua.eus

Udala, Euskara Saila (Potxoenean)

943 371 999
euskara@usurbil.eus

Udan ere, euskalduntzeko aukera

Euskalduntzeak ez du oporrik, ezta udan ere. Euskara ikasi edo hobetzeko eskaintza zabaldua prestatu du AEK-k. Ikastaro trinkoak batetik, Etumeta AEK euskaltegian. "Euskaltegira hurbiltzerik ez edota oporretatik aritu nahi dutenentzat, on-line ikasteko aukera ere izango da AEKn", ohartarazi dute. Eta Usurbildik kanpo, barnetegiak antolatu dituzte Euskal Herriko txoko ezberdinetan; euskalduntze eta familia barnetegiak, barnetegi ibiltariak, Xiberera ikasteko barnetegia...

Informazio gehiagorako:

usurbil@aeq.eus
607 609 379
muntteri.blogspot.com.es
aeq.eus

“Gure haurrei ez diegu hutsik egingo”

GURASOS-EK IGANDE EGUERDIKO GIZARTE HESIAN PARTEHARTZERA DEITU DU

Igande honetan eguerdiko 12:00etan hasita, giza-kate modukoa egingo da Donostian. Antiguako tuneletik abiatu eta Kontxako pasealekuan barrena, Alderdi Ederrean amaituko da. Ekitaldi bat egingo dute amaieran. Desfile gisakoa izango dela adierazi dute GuraSOS taldeko kideek. Gurasoei eta jende helduari beltzez joateko eskatu diete eta gaztetxoek, zuriz.

“Gure haurrek babestuko dituen hesia izan nahi dugu gurasook”. Hala adierazi zuen Joxemari Izetak, GuraSOS taldeko bozeramaleak. Iganeko ekitaldia iragartzeko prentsaurrekoa eskaini zuten Koldo Mitxelena Kulturunean. “Gure haurrek eta gure gaztetxoak



Gurasoak eta senitartekoak beltzez eta haurrek zuriz joatea eskatu dute. Donostiako Antigua auzoko tuneletik abiatuko dira, eguerdiko 12:00etan. Argazkia: Ion Markel.

babestuko ditugu. Ez diegu hutsik egingo, gu gara euren hesi-babeslea”.

Osasuna aldarrikatuko da

Alderdi Ederreko ekitaldian, osasuna aldarrikatu eta gaia despolitizatzea eskatuko da.

“Gizarteari bueltatu behar zaio ardura, eztabaida eta erabakia. Horretarako beharrezkoa da informazio zuzena, independentea, kontrastatua jasotzea. Horrek emango digu benetako erabakiak hartzeko bidea”. Lis-kar eskenatokiak alde batera

utzi eta adostasuna bilatu behar dela adierazi du GuraSOS taldeak.

Parte-hartze prozesua zabaldu asmoz, ekimen juridikoa jarri dute martxan

Legea baliatuz, erraustegiari buruzko parte-hartze prozesua irekitzea eskatu du GuraSOS taldeak. Eta horretarako ekimen juridikoa jarri dute martxan. Gaia liskar politikotik atera eta eztabaida gizarteari bueltatzeko garaia dela uste dute. Horregatik, parte-hartze prozesu hori, “osoa eta benetakoa” izatea eskatu zuten astelehenean, prentsaurreko bidez. “Gure haurren osasuna jarriko dugu gure lehen interes moduan. Osasuna guztiz bermatuta ez dagoelako”.

GuraSOSek iganderako deitu duen ekitaldiak atxikimendu asko batu ditu

Agirre, Ramon (aktorea)
 Agirretxe, Imanol (futbolaria)
 Agirrezaldegi, Ainhoa (bertsolaria)
 Agote, Xabi (Albaola Fundazioko lehendakaria)
 Aierbe, Ainhoa (aktorea)
 Akizu, Xabi (Biolur)
 Alustiza, Martin (pilotaria)
 Andonegi, Tessa (antzerkigilea)
 Amurua, Edorta (musikaria)
 Aranzabal, Fausti (Kresala dantza)
 Aristegi, Maite
 Arkarazo, Kaki (musikaria)
 Arnedo, Naiara (aktorea)
 Arrazola, Agus (antzerkilaria)
 Arregi, Juanjo (Euskadiko Emakumeen Futboleko Selekzioa)
 Arrieta, Yolanda (idazlea)
 Arrillaga, Esteban (Judo Federazioko zuzendari teknikoa)
 Artola, Iñaki (pilotaria)
 Astarzola, Mikel (txirrindularia)
 Azpiazu, Ainara AXPI (marrazkilaria)
 Azurmendi, Ander (aktorea)
 Balerdi, Eneko (dantzaria)
 Beloki-Jauregi, Eleuterio (panderojolea)
 Beobide, Olatz (aktorea)
 Berasategi, Juanba (zine zuzendaria)
 Calo, Teresa (aktorea)



Argazkia: Ion Markel

Camarero, Xabi (musikaria)
 Diez, Laura (argazkilaria)
 Egaña, Andoni (bertsolaria)
 Elorrieta, Eñaut (musikaria)
 Errasti, Iñaki (arraunlaria)
 Errasti, Kepa (antzerkigilea)
 Errekondo, Jakoba (paisajista, ingeniari agronomoa)
 Etxeberria, Alazne (aktorea)
 Ferrer, Mariano (kazetaria)
 Fresnedo, Lierni (UR teatroa)
 Gabarain, Ane (aktorea)
 Gantxegi, Eñaut (aktorea)
 Goikoetxea, Enara (zine zuzendaria)
 Goikoetxea, Iker (paisajista)

Gorriti, Juan (eskultorea)
 Hernandez, Asier (aktorea)
 Imuntzo - Azpitarte, Juan Ramon (trikitilaria)
 Iparragirre, Iraia (futbol jokalaria)
 Irastorza, Iñake (aktorea)
 Irazustabarrena, Jon (futbol jokalaria)
 Irizar, Markel (txirrindularia)
 Iruretagoiena, Ander (aktorea)
 Korta, Jose Luis (arraunlaria)
 Larratxe, Joseba (marrazkilaria)
 Lertxundi, Napoleon (Saizar sagardotegia)
 Lopetegi, Jexus Mari (musikaria)
 Markez, Mikel (musikaria)

Martin, Jon (bertsolaria)
 Martin, Miguel Angel (Usurbilgo Judo Klubeko presidentea)
 Mujika, Amagoia (kazetaria)
 Munarriz, Fermin (kazetaria)
 Muniain, Asier (surflaria)
 Naudo, Edi (antzerkilaria, eszenografoa)
 Odriozola, Lurdes (historialaria)
 Olaizaola, Aimar (pilotaria)
 Ortega, Ainara (aktorea)
 Otxoa, Gorka (aktorea)
 Porras, Haritz (aktorea)
 Rodriguez Fito (irakasle-idazlea)
 Sarasola, Beñat (idazlea)
 Sarriugarte, Danele (idazlea)
 Seguro, Iñigo (paisajista)
 Solano, Xabier (musikaria)
 Tapia, Alejandro (margolaria)
 Tapia, Joseba (musikaria)
 Tello, Alex (aktorea)
 Urdermunt antzerki kolektiboa
 Urretabizkaia, Dorleta (aktorea)
 Zabala, Pello (eguraldi-gizona)
 Zabalegi, Maider (musikaria)
 Zabaleta, Iñaki (kazetari-idazlea)
 Vasallo, Diego (musikaria)
 Zabaleta, Asier (koreografo, dantzaria)
 Zaldieroa (marrazkilaria)
 Zubeldia, Haimar (txirrindularia)
 Zumeta, Joxe Luis (margolaria)



Klik! batean

Irria galdu gabe

GuraSOsen logoak hau adierazi nahi luke: familia eta gizartea arriskuaren aurrean (maskara gorriaz adierazia) bere haur eta gazteak babesten. SOS hori alarma dei bat da. Haur txikia zuriz dago, eta horrek adostutako irtenbidearen esperantza sinbolizatzen du, liskar egoera batetik adostasunezko egoera batera pasatzeko nahia. GuraSOsek aditzera eman duenez, "Gipuzkoa osasuntsu bat nahi dugu, toxizitate kimiko eta politikoetatik libre. Gizarteak hori adieraztea nahi dugu igande honetan, 12:00etan Kontxako pasealekuan".

Argazkia: Ion Markel



Gazteek eta helduek batera ospatuko dute Oilasko Biltzaileen Eguna

Oilasko biltzaileen bazkaria ekainaren 25ean egingo dute, eguerdiko 14:00etan hasita. Bazkarirako txartelak ordea, alde zurretik erosi behar dira.

Goizeko 9:00etan abiatuko dira oilasko biltzaileak. Baserri baserri ibiliko dira goiz partean. Eskean xahututako indarrak bazkari eder batekin berrituko dituzte.

Txartelak, Kaffan salgai

Bazkarirako txartelak Kaffa kafetegian egongo dira salgai. Baina kontuan izan ekainaren 22a baino lehen erosi behar direla oilasko biltzaileen bazkarirako txartelak.



Goizean goiz abiatuko dira oilasko biltzaileak. Eta arratsaldean, auzotarren arteko jokoak. Egun borobila izango da larunbatekoa.

Bazkaltzeko tresneria etxetik eraman

Hala ohartarazi dute antolatzailuek. Beraz txartela erostean

aparte, bazkarira labana eta sardexka eraman behar dira.

Arratsaldea girotzeko, herriko dantzariak emanaldia eskai-

niko dute eta ondoren buruhandien txanda izango da. Eta jarraian, auzotarren arteko jokoak.

Gauetz, Dj Seymar izango da plaza girotzen arituko dena.

Dantzariak, plazara

Orbeldik, herriko dantza taldeak girotuko du oilasko biltzaileen bazkalostea.



Larunbatean, arratsaldeko 17:00etan hasiko da dantza saioa.

ONDO PASA SAN UANETAN!

Kalezar 39, USURBIL 943 37 39 95 sidreria@sidrassaizar.com www.sidrassaizar.com

Ostiral gauez, Floxbin, Eratu eta Erokomeri taldeen emanaldiak



Floxbin. 15 urterekin hasi ziren entseatzan. Floxbin izena ipini zioten taldeari. Baina gero beste proiektu batzuetan murgildu ziren. Urte askoren bueltan, berriro elkartu dira Joxeba Agirresarobe eta Iñaki Udabe, eta gaztetako proiektu hura berpiztu dute. Zuzenekoetarako Iñigo Roteta baxujolea fitxatu dute. Argazkia: Soraya Moon.



Erokomeri. 2015eko urte hasieran sortu zen erromeria taldea. "Ilusioarekin hasi genuen bidaia, ez genuen espero horrelako erantzun onik izango genuenik", euren Facebook orrian irakurri dugunez. Berriki, "Euskal hitza" izeneko kantuarekin bideoklipa egin dute eta hiru astetan zortzi mila bisita jaso ditu.

Josue
Igeltseritza

☎ 606 37 21 05

Ondo pasa
San joanetan!!!

Fatxaden estaldurak
Estalkien berriztatzeak
Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa

Igeltseritza orokorra

Lau egunez, jai-giroa nagusi izango da Kalezarren

Ekainak 23 osteguna

San Juan Bezpera

15:00etan: San Juan eskearen irteera.

22:00etan: San Juan sua.

Ondoren: Eskearen Jarraipena.

Ekainak 24 ostirala

San Juan Eguna

11:30etan: Meza nagusia.

Ondoren: Toka.

13:00etan: "Gorritiren Showa".

17:00etan: Buruhandiak.

19:00etan: Soka Dantza.

Ondoren: Sardina eta sagardo dastaketa "Saizar" Sagardotegiaren eskutik.

23:30etan: Kontzertuak: Floxbin, Eratu, Erokomeri taldeekin.



San Juan bezperan hasiko dira festak. Oilasko biltzaileen eguna larunbatarekin egokitu da aurten. Igandean, Umeen Egunarekin amaituko dira festak.

Ekainak 25 larunbata

Oilasko Biltzaileen Eguna

09:00etan: Oilasko biltzaile txikien irteera.

14:00etan: Oilasko biltzaileen bazkaria (tiketak kaffa kafetegian eros daitezke ekainaren 15etik 21era).

16:00etan: Musa (izen-ematea 15:30etan itxiko da).

17:00etan: Herriko dantzariak. Ondoren: buruhandiak.

Jarraian: Auzotarren arteko jokoak.

00:00etan: Dj Seymar.

Ekainak 26 igandea

Umeen Eguna

10:00etan: XIV. Ume Krosa.

11:30etan: Jolasak.

16:30etan: Tailerrak.

18:00etan: Txokolatada.

Ondoren: buruhandiak.

19:00etan: Dj Burundarekin dantzaldia.

Oharra: Jai Batzordea ez da jaietan gerta daitezkeen istripu edo ezbeharrez arduratuko.



ANORGA TXIBI S.L.

KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak
- beira bikoitza · segurtasun beirak
- dutxa-itxiturak eta irristailuak · ispiluak
- barandak · kristal mota guztiak...

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

ANDER ARANZAZISTROKI

industria
garbiketarako
sistema eta
produktuak

Ondo pasa
San Joanetan!



Goieko

INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

667 680 236

**bulegorako altzariak
eta hornidura**

**paper dendarako
artikuluak**



Ugaldea Industrialdea, 11
Tfno.: 943 365 892
Faxa: 943 371 686
20170 USURBIL (Gipuzkoa)
manpel@manpel.com
www.manpel.com



**LARRAÑAGA
PLASTIKOAK E.A.**


**INDUSTRIARAKO
PIEZA MOLDAKUNTZA**

Ugaldea industrialdea, 1. USURBIL
Telf: 943 36 14 46 / 943 37 33 05
Fax: 943 37 70 01
admon@larranagaplasticos.com

BAZKIDEEN TXOKOA



**ASTE HONETAN...NOAUAKO
bazkide guztien artean
zoketatuko DUGUN SARIA...**



**2 LAGUNENTZAKO
ZIRKUITU TERMALA ORIOKO AISIAN**

noaua! euskararen aterpe

Genero indarkeriaren eta sexu erasoen aurkako protokoloa, erabiltzeko prest

Ahalik eta gutxien erabili behar izatea desio dute, erasotiak diren emakumei arreta hobea eskaintzeko, duela astebete, erakundeen arteko jarduerarako eta koordinaziorako I. Udal Protokoloa sinatu zutenek. Eta erabili behar izanez gero, ahalik eta modu eraginkor eta egokienean erantzutea espero dute. Erakunde ezberdinen konpromiso hau jasotzen duen agiria izenpetu zuten Xabier Arregi Usurbilgo Udaleko alkateak, Jose Manuel Ladron de Guevara Donostialdeko Osakidetza-ESiko zuzendari gerente-arduradunak eta Karmelo Martinez Sarobe, Hernaniko Ertzain-etxeko buruak.

Hiru erakundeek elkarlanean diseinatu, erredaktatu eta onarturiko udal protokoloa dugu sinatu eta jada martxan dena. “Tokiko protokolo honen helburua indarkeria egoeren detekzioa eta arretan ematen den erakundeen arteko koordinazio eta jarraipena ahalik eta egokiena izatea bermatzea da, beti ere emakume bakoitzaren nahiak eta egoera kontuan hartuta”, adierazi dute Usurbilgo Udaletik.

Emakundek diruz lagundu duen protokoloak finkatuak dituen jarraibideen arabera joka-



Aurreko astean sinatu zen protokoloa.

HELBURUA

Modu koordinatuan eta elkarlanean arituz, “protokoloak emakumeek jaso beharreko arreta nabarmen hobetzeko balioko du”

tuko du Udalak aurrerantzean. Halere ez da protokolo itxia. Egokitzen, eguneratzen, hobetzen joan eta gertuko jarraipen bat egiteko mahai tekniko bat ere osatuko da. Usurbilgo anbulatorioa, udaltzaingoa, Ertzaintza, Gizarte Zerbitzuak edota udal Parekidetasun Saila ordezkatuak egongo dira bilgune horretan. Azken sail honetako teknikariak koordinatuko du, protokoloa ebaluatu eta

hobekuntzak egitea ahalbidetuko duen jarraipen batzorde moduko mahaia. “I. Protokoloaren edukien jarraipena eta ebaluazioa egiteko, erakunde bakoitzeko ordezkariekin koordinazio mahai tekniko osatuko da, bertan berrikusi eta antzemandako beharrei egokitu joango dira, protokoloak etengabe hobetzeko helburua duelako”, adierazi dute Usurbilgo Udaletik.

Erasoak sahiestu, desagertzeraino

Zoritarrez, gai honek jendar-tean duen presentzia ikusita, Usurbilgo alkateak beharrezkoa ikusten du errealitate honen “aurkako neurriak hartzea, modu eraginkor batean”.

Udalaren izenean, Arregik protokolo honetan inplikatu diren beste bi eragileen jarrera, eta erakutsi duten borondate eta interesa eskertu zituen. Hernaniko Ertzain-etxeko buruak ere udal ekimena txalotu zuen. Modu koordinatuan eta elkarlanean arituz, “protokoloak emakumeek jaso beharreko arreta nabarmen hobetzeko balioko du”, adierazi zuen. Eta hobetzen segi asmo dute, Osakidetza ordezkariak nabarmendu zuenez, elkarbizitza eta giza eskubideen aurkako manifestazio larriena diren emakumeen aurkako erasoak saihestu, eta desagertzeraino.

Protokoloa, elkarlanean bideratua

2011: Genero indarkeriaren prebentziorako eta indarkeria mota hau jasan duten emakumei laguntza eskaintzeko udal politiken diagnosis egin zen.

-Gero, arreta zerbitzuan parte hartzen duten udaltzain, gizarte edota osasun langileekin formazioa landu zuten.

-Segidan, eragileen parte hartzearekin protokoloa definitzeari ekin zioten.

2012: protokoloaren azken bertsioa esku artean zuen Udalak. Protokoloan parte hartzen duten erakundeei helarazten die zirriborroa, azter dezaten. Ekarpinak jasotzen dira. Ertzaintzako arduradunek dokumentua erdarara itzultzea eskatzen dute.

2014: Ertzaintzak bere ekarpinak egin eta dokumentua osatzen da.

2016: otsailaren 18an Parekidetasun eta Aniztasun Batzordeak aho bateko babesa eman ostean, otsailaren 23ko osoko bilkuran aurkeztu eta aho batez onartu zuten udal ordezkariak, protokolo berri hau.

Gaiak lehentasuna du Udalarentzat

Indarkeria mota hau desagerrazteko, sensibilizazioan eta prebentzian, eta detekzioan eta arretan eragitea lehentasun dira Usurbilgo Udalarentzat. Lehen esparruari dagokionean, “urteetan zehar gauzatutako herritar guztiei zuzendutako sensibilizazio ekintzak, edota emakumeen jabeak eta partaidetza sustatzeko antolatutako jabeak eskola, edota hezkuntza

alorrean hezkidetzeta programa, horren adierazle dira”. Bigarrenean, detekzioan eta arretan eragiteko sinatu zuten duela astebete, aipaturiko protokoloa.

Protokoloak biltzen dituen atal nagusiak

■ Genero indarkeriaren eta sexu eraso biktima diren emakumei laguntzeko eta esku hartzeko printzipio nagusiak.

■ Genero indarkeria eta sexu eraso kasuetan koordinatzeko prozedurak.

■ Erakundeen arteko koordinazioa.

■ Udalaren adierazpenak eta ekintza publikoak.

■ Usurbilen genero indarkeriaren edo sexu eraso onorioz emakume bat erahilko balute, Udalak jarraitu beharreko prozedura.

Ingemarrekook, astebete greban



Mugarik gabeko lan uztea hasi zuten ekainaren 6an, lan gatazkari aterabideren bat bilatzeko ahaleginean.

Atarik hesiak alderik alde ixten du sarbidea. Lantegia geldirik dago, isilik. Eta enpresa atarian, kalean, "Ingemar ez itxi" dioen

pankartaren ondoan langileak. Goiz eta arratsalde, egun osoan zehar txandakatuz, bilduta. Ingemarren itxieraren aurka eta enpleguaren alde ekainaren 6an

abiatu zuten greba mugagabeak astea bete du. Eta hala segitzen dute, mugarik gabeko lan uztean, lan gatazkari aterabideren bat bilatzeko ahaleginean.

Gaztelekua, udako ekimenetan

Udarako ekimen mordoan antolatu dituzte. Udafešta ospatu zuten aurreko larunbatean. Datozen egunotan ekimenotan parte hartzeko aukera izango dute gazteek:

Ekainak 18, larunbata

16:00 Paintball DBH3koentzat Gaztelekuan

Ekainak 20, astelehena

16:30 Pizza tailerra DBH1ekoentzat Gaztelekuan.

Ekainak 27, astelehena

16:30 Garbiketa Gaztelekuan. Erabiltzaile guztiei zuzendua.

Gaztelekuen arteko elkartrukea

Usurbilgo Gaztelekuko 5 ki-deek, Gipuzkoako beste bi Gaztelekuetako 15-17 urte arteko 10 kiderekin batera, Foru Aldundiak sustaturiko "Instantlean Europara!" izeneko ekimenean parte hartuko dute. "Erasmus+ programak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatuz, herritartasun digitala nazioarteko mailan landu nahi da, beste herrialde bateko gazteekin batera".

Kasu honetan Alemaniako Wiesbadengo 15-17 urte arte-

ko beste 15 gazterekin batera bi egonaldietan parte hartuko dute; lehenbizi Zarautzen, ekainaren 22tik 28ra, eta gero Wiesbaden, uztailearen 18tik 24ra. Gipuzkoako Gaztelekuak europar programetara gerturatzeari; gazteei beste kultura batzuk ezagutu eta errespetatzeko aukera emango dien esperientzia batean parte hartzeko aukera ematea; teknologia berrien aurrean gazteek ikuspegi kritikoa izatea; eta beste herrialdeetako gazteekin komunikatzeko gaitasunak gartzeari. Horiexek, proiektu honen helburu nagusiak.

Helduen Hezkuntza

Iraunkorra

Ekainaren 30era arte zabalik egongo da hezkuntza arautuko ikastaroetan, atzeritarrentzako gaztelania saioetan eta Zikloetarako sarbide probak prestatzeko programetan matrikulatzeko epea.

Izen emateko:

EPA, Beheko Kale Bidea 1, Lasarte-Oria

943 376 443

info@epalasarate.es

epalasarate.es

Lanbide Heziketa

Ekainaren 17an itxiko dute aurrematrikulazioa Lanbide Heziketan. Erdi eta goi mailako zikloek eskaintzen dituzte Zubietan: administrazioa, elektrizitate-elektro-nika, fabrikazio mekanikoa, energia eta ura.

Ihusurbil.eus

eskola@lhusurbil.eus

943 364 600

Oinarrizko Lanbide

Heziketa

Ostiral honetan itxiko dute Oinarrizko Lanbide Heziketan aurrematrikulatzeko epea. Ile-apainketa eta estetikan, eta sukaldaritza eta jate-txe-arloan oinarrizko titulua eskuratzeko aukera dago bertan. Lanbide bat ikasi eta lan munduratu nahi duten 15-17 urte arteko gazteentzat eskaintza egokia. Sarbide zuzena eskaintzen du erdi eta goi mailako zikloetara.

Usurbilgo Udala. Atallu.

Zanpiura, 3.

943 360 465

lhi@usurbil.eus

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

txirriStra

TABERNA



-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Zikiro-janerako txartelak salgai

Herriko jaien baitan, uztailaren 2an ospatuko den kantuzikiro janerako txartelak salgai jarri dituzte jada, Bordatxon, Aitzagan eta Txiribogan, 25 eurotan. Ikasle eta langabetuek 15 eurotan eskuratu ahalko dituzte. “Txartel mugatuak! Ez izan azkena erosten!” ohartarazi dute antolatzaileek. Usurbilgo Kantu Taldeak eta Kuxkuxtu txarangak girotuko duten herri bazkaria, uztailaren 2an, 14:00etan Askatasuna plazan izango da.



Txartelak mugatuak izango dira. Beraz, alde aurretik errostea komeni. Bordatxon, Aitzagan eta Txiribogan daude salgai.

Jubilatuaren bazkaria

Jaietako otordua uztailaren 3rako antolatu dute, igandearako honenbestez, Atxega jauregian. Bazkaritarako txartelak aurrez eskuratu beharko dira. Aurreko astekarian ekainaren 21a baino lehen eskuratu beharko zirela berri eman genizuen. Baina oker eman genuen datua, barka eragozpenak. Ekainaren 21ean jarriko dituzte salgai, Artzabalgo Gure Pakea, Santueneko Gure Elkartea edo Aginagako Arrate jubilatuen egoitzetan, baita Usurbilgo Udaleko Gizarte Zerbitzuetan ere. Bazkaritara joan ahal izateko

60 urte beteta edo aurten betetzea eskatuko da. Usurbilen erroldatua egotea ezinbestekoa izango da. Bi salneurri finkatu dituzte; 20 eurotan eskuratu ahalko dituzte txartelak, 60-65 urte artekoek; 10 eurotan, 65 urtetik gorakoek.

Immersoren opor eskaintza

Jubilatuentzat antolatzen diren oporraldietan parte hartu nahi dutenek, ekainaren 17a baino lehen bideratu beharko dute eskaera Usurbilgo Udaleko Gizarte Zerbitzuetan. Mediterraneo kostaldea, barnealdea, balear edota kanariar irletan

7-15 egun arteko egonaldiak egiteko aukera eskaintzen du Immersok. Informazio gehiago, Gizarte Zerbitzuetan edo 943 377 110 telefono zenbakian.

Gehigarria, astebete barru

Ekainaren 30etik uztailaren 3ra Usurbilgo jaietan izango ditugun ospakizunei buruzko informazio gehiago, ekainaren 24ko astekariarekin batera kaleratuko dugun gehigarrian jasoko duzue. Egun horren bueltan Udalak etxez etxe banatuko du, Intza Salsamendik diseinaturiko festetako egitaraua.

Andatzakoak, Ganbo gailurrean



“28 mendizaleek egin dugu Lizarrustitik Larraitzeraino ibilaldia. Ibilbidean Ganbo mendia (1.417 m) igo dugu”, adierazi dute Andatza M.K.T.-tik,

NOAUA!ra bidali duten ondoko argazkiarekin batera. Pasa den igandeko txangoaren ostean, hurrengo irteera uztailaren 10erako antolatu dute; Otzaur-

te-Aizkorri-Arantzazu bidea osatuko dute. Pirinioetako asteburupasa, Ordesara aurten, irailaren 9tik 11ra antolatu dute. Informazio gehiago: andatza.com



Zubieta, finalerdietara

Euskal Herriko Errebote Txapelketako lehen mailan lehiatzen ari den Zubieta, finalerdietara igaro zen igandean, etxean, Zubietako erreboten plazan Donapaleuko Amikuze taldeari 13-10 irabazi ostean.

Futbolari beteranoen topaketa

Zumaian jokatu zuten otsaila amaieran eta orain etxean hartuko dituzte bisitariak. Lagun arteko partida jokatu du Usurbil F.T.-ren beterano taldeak, larunbat arratsalde honetan, 17:00etan Haranen, Zarautzen aurka. Gogoan izan, taldea jokalaria gehiago izateko gogoz dela. “Futbola gustuko izan eta Usurbil F.T.-n jokatu baduzu, beteranoen taldean parte hartu!”. Argibide gehiagorako: 658 709 246.

Estitxu Berasategi, Europara

Espainiako Selektzio hitzorduetan parte hartzeko gonbita jaso du berriz Usurbil Kirol Elkarteko jokalaria. Oraingoan ordea, urrutira doa. Uda mugitu askoa datorkio Berasategiri:

- Ekainaren 26tik uztailaren 9ra Suediara Europako Txapelketa jokatzera.
- Uztailaren 15etik 17ra Kroaziako Torneoa jokatzera.
- Eta uztailaren 18tik abuztuaren 1era Eslovaquiara, Munduko Txapelketan parte hartzera.

Usurbil Cup, irailean

Iaz Kilometroak jaialdia zela eta, ekainera aurreratu bazuten ere, aurtengo ediziotik hasita, Usurbil Cup ekimena etorkizunean irailean antolatze-ko asmoa du Usurbil F.T.-k. Datorren ediziorako izen emateko epea ekainaren 3an itxi zuten. Lehen Hezkuntzako lehen mailan ikasten ari denetik hasi eta DBH 2an dabiltzanengana dago zuzendua kirol ekimena. Antolatzaileek aurrerago emango dituzte Usurbil Cup-i buruzko xehetasun gehiago.



Izen-ematea ekainaren 3an amaitu zen. Oraindik asko falta denez, aurrerago emango dituzte partiden inguruko xehetasunak.

Nesken futbol taldeak osatzeko hitzordua

Entrenamendu saioa antolatu du Usurbil F.T.-k, hurrengo denboraldian klubean parte

hartu nahi duten kadete, jubenil eta erregional mailako neskekin. Ostiral honetan, 18:30etan "kadete, jubenil eta erregional mailako nes-

ken taldeen aldeko apustua eginez, adin horietako neskei deialdia luzatzen diegu entrenamendu saiora". Haranen izango da.

Udarregi 6B, futboleko nagusi



Eskola Kiroleko nesken taldeak Gipuzkoako Liga irabazi du.

Gipuzkoako Liga irabazi dute Udarregi Ikastolako neskek, igandean Realaren Fundazio Festan, Zubietako zelaian, Arrasateko Leintz eskolaren aurkako neurketan, 2-1 emaitzarekin nagusitu ostean. Usurbildarren bi golak Uxue

Orbegozorenak izan ziren. Eskola Kirolean dabil nesken talde hau. Urte erdiz eskubaloian aritu ostean, azken hilabeteok futboleko trebatzen aritu dira. Eskola Kiroletik lehia alboratu, eta parte hartzaile guztiak direla sarituak gogorazten dute.

Larunbatean, Usurbil Keren batzarra

"Garrantzizko erabaki asko hartuko dira etorkizunari begira eta jokalaria, guraso, entrenatzaile, zaletu eta bazkide guztiei dei egiten zaie bertaratu daitezen", luzatu dute gonbita Usurbil K.E.tik. Honatx eskubaloi taldeen bilguneak deituriko batzarrean jorratuko duten gai zerrenda:

■ Eguna: ekainak 18, larunbata.

■ Ordua: 11:15.

■ Tokia: Sutegiko auditorioa.

■ Gai zerrenda:

-Lehendakariaren agurra.

-2015-2016 denboraldiaren balantzea.

-2016-2017 denboraldirako aurreikuspenak eta proposamenak.

-Bazkideen eta besteen proposamenak.

-Galdera-erreguak.

Deitzailea: Usurbil K.E.

Ekainak 25, Usurbil Keren eguna

Ekainaren 25ean ospatuko dute. Egunean zehar elkarte kideen arteko lagun arteko neurketak jokatu dira. Eta gauerako herri afaria antolatu dute Askatasuna plazan. Txartelak agortzeraino salgai izango dira, beranduenez ekainaren 22ra arte, Bordatxon eta Aitzagan. 14 urtez azpiko haurrenak 10 eurotan, 14 urtetik gorakoen 20 eurotan.

Pilota partidak

Ekainak 17 ostirala

19:30ean Usurbilen, finalerdia
Otxandorena-Landiribar /
Mikel-Altuna

Ekainak 18 larunbata

Adimen urritasuneko partidak

Ekainak 19 igandea

12:30ean Usurbilen, finalerdia
Santxo-Elola / Azketa-Atxa

Kirol eskaintza gazteentzat

8-13 urte artekoek uztailean kirolaz gozatzeko eskaintza zabala aurkituko dute Kiroldegian antolatu dituzten txokoei esker. Argibide gehiago:

943 372 498

kirola@usurbil.eus

buruntzaldea.eus

Facebook: Oiardo Kiroldegia

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Patriña
lateketa
bazkariak EGUNERO
afariak, asteazkenetik larunbatera
943 362725 · 688 690 361

Agenda ekaina

17 ostirala

- **Zumartekoen ikasturte amaierako ekitaldia** Pop-Rock-Folk taldeak. 18:00etan Askatasuna plazan.
- **"Artzeren unibertsoa" erakusketa** Potxoenean. 12:00-14:00/18:00-20:00.

18 larunbata

- **Batzar irekia: erraustegiari buruzko herri galdeketa.** 11:00etan Udarregi ikastolan.
- **Paintball Gaztelekuan** 16:00etan Gaztelekuan bertan. DBH3koei zuzendua.
- **"Artzeren unibertsoa" erakusketa** Potxoenean. 12:00-14:00/18:00-20:00.

19 igandea

- **GuraSOS-ek** deituriko desfilea 12:00etan Donostiako Antiguako tunelean.
- **"Artzeren unibertsoa" erakusketa** Potxoenean. 12:00-14:00.

Ostiral honetan, Zumarteko pop, rock eta folk taldeen kontzertua

Zumartekoen ikasturte bukaerako ekitaldiak antolatu dituzte egunotarako. Ostiralekoa elkartasun kontzertua izango da. Batzen den dirua errefuxiatu siriarreri laguntzen ari den Basque Lifeguards sorosle taldearentzat izango da.

Ekainak 16, osteguna

18:30 Talde instrumentalen emanaldia Sutegiko auditorioan.

Ekainak 17, ostirala

18:00 Pop-Rock-Folk taldeen emanaldia Askatasuna plazan.



Kontzertua Askatasuna plazan izango da. Biltzen den dirua Zarauzko sorosleek osaturiko Basque Lifeguards taldearentzat izango da.

"Artzeren unibertsoa" Potxoenean bildurik

"Ikimilikiliklik, JA Artzeren unibertsoa" izeneko erakusketa uztailaren 3ra bitarte izango da ikusgai.

■ Orduetgia: goizez astelehenetik igandera: 12:00-14:00. Arratsaldez asteazketatik larunbatera: 18:00-20:00.

■ Sarrera: doan.

■ Antolatzaileak: Jexux Artze K.E. eta Usurbilgo Udala.

■ Laguntzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia.



Donostian eta Miarritzen egon da ikusgai. Orain Potxoenean topatuko duzue.

Datozenak

Umeen Eguneko ginkana

Usurbilgo jaien baitan, haurrek ezinbesteko tartea izango dute. Aurten goan, uztailaren 1ean ospatuko dute umeen egun handia.

Izena-emateko epea: ekainak 24

Guraso talde batek goizetik arratsaldera antolatu duen egitarau zabalaren baitan, ginkanan parte hartzea animatzen dituzte haurrak. "Ginkanan izena eman ez duten haurrek (LH-ko ikasleei bideratua) aukera izango dute bertan parte hartzeko ekainaren 24a arte, azken egun hau barne. Horretarako eskaera bidali beharko dute norbere izen abizenak eta ikasten ari den maila azalduz. Eskaera bidali helbide honetara: santixabelak.umeen.eguna@gmail.com", ohartarazi dute antolatzaileek.



Partehartu nahi duenak email hau du eskura: santixabelak.umeen.eguna@gmail.com

ETXETRESNEN KONPONKETAK
azkar, prezio onean MARKA GUZTIAK
20 URTEKO ESPERIENTZIA
645417665
XABIER
Usurbil

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ELORZA
O BRAK ETA
ER REFORMAK S. L.
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

EDERTU ZAITEZ!



Loli Lizarralde
ESTILISTA

PREZIO BAXUAK
KALITATEZKO
PRODUKTUEKIN eta
PROFESIONALITASUN
HANDIAREKIN

**KALIFORNIAR
METYAK + ORRAZTU
29€**

**L'ORÉAL
PROFESSIONNEL**

ESTETIKAN TARIFA BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5B USURBIL 943 361 971



Natura Bissé
ESTETIKA

Zure ozola
Kalitate handiko
produktuekin
zaintzen dugu

DOUBLE ACTION HYDRO
PROTECTIVE DAY CREAM

munlurra 2, Usurbil 943 571 680



Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal



**JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA**

artzabal baserria 626603600

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU

EKAINENKO ESKAINTZA

GARBIKETA ETA HIDRATAZIOA:
LEHEN-30€ ORAIN 25€

ADINAREN AURKAKO
TRATAMENDU BEREZIA:
LEHEN-40€ ORAIN 35€

AURPEGIKO GARBIKETA: 20€

424 SAKONEKO NUTRIZIO
ZELULARRA:
LEHEN-50€ ORAIN 40€



INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Egueditan irekial
Nagusia 8, Usurbil tel: 943 36 36 41



Elexpe
ileapaindegia

Betileen tintaketa
eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta etzandako
Solariuma



Muna Lurra 12. © 943 370 462

Berria!

**GOLDWELL
ELUMEN**

ileapaindegia

mistoa

BIOLOGO BATEK
MIKROSKOPIOZ
EGINDAKO BURU-AZAL
ETA ILEAREN AZTERKETA

KONTSULTA DOAN!

9.00etatik 19.00etara zabalik
Zubiaurrenea 4 • 943 361 951

GERTU USURBIL TXARTELA



GERTU, usurbildarren txartela

Oiardo kiroldegia, Sutegi liburutegia, Potxoenea kultur etxea, gure herriko dendak..., zerbitzu guztiak txartel bakarrean

Hurbilagoko

**DESKONTUAK
UZTAILAren**

15era arte egingo dira!

Auzo eta herri bertako zerbitzuak erabiliz,
eman bizia zure herriari!



Usurbilgo Udala

hurbilag

Usurbilgo Merkataritza eta Ostalariak Elkartea



badabil